

FUNTSEZKO JARDUERAK

Negozio-ereduak funtzionatzeko beharrezkoak diren ekintza nagusiak egin behar dira.

Enpresak bere balio-proposamena eskaini, bezeroak eskuratu eta mantendu, eta diru-sarrerak lortu ahal izateko funtsezko ekintzak.

Balio-proposamena sortzeko ekintzak:

- Produktua/zerbitzua diseinatzea, garatzea eta hobetzea.
- Kalitate-kontrola eta berrikuntza.
- Zerbitzuaren prestazioa edo entrega (logistika, banaketa, plataforma digitalaren mantentzea, eta abar).

Bezeroei lotutako ekintzak:

- Marketina eta komunikazioa (kanpainak, sare sozialak, iragarkiak).
- Bezeroak eskuratzea eta fidelizatzea.
- Bezeroarentzako arreta eta laguntza teknikoa.

Funtzionamendu operatiboak:

- Eguneroko kudeaketa: logistika, erosketa, hornidura-katearen kudeaketa.
- Baliabide teknologikoen mantentzea: webgunea, aplikazioa, softwarea.
- Kalitatearen eta eraginkortasunaren jarraipena.

Finantza- eta administrazio-ekintzak:

- Kostuen kudeaketa eta aurrekontuen kontrola.
- Diru-sarreraren kudeaketa eta kobrantzak.
- Legezko eta administrazio-betebeharrak betetzea.

Aliantzak eta kanpo-harremanak:

- Hornitzaileekin koordinazioa.
- Bazkide estrategikoekin lankidetzak.
- Banaketa- edo salmenta-sareen bilaketa eta kudeaketa.